

Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak eta langile okupatuak. 2025eko laugarren hiruhilekoa

Nabarmentzekoak

2025. urtea

Urte arteko bilakaera: Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentek % 3,5 egin dute gora.

Sektoreak: *Elikadura* sektorean urte arteko aldakuntza-tasa % 2,5ekoa da, *Gainerako produktuak* sektorean % 2,9koa eta *Automoziorako erregaia* sektorean % 12,3koa.

Lurralde historikoak: Araban urte arteko aldakuntza-tasa % 5,5ekoa izan da, Bizkaian % 2,9koa eta Gipuzkoan % 3,4koa.

Enplegua: langile okupatuak % 0,8 handitu dira urte batetik bestera.

2025eko laugarren hiruhilekoa

Urte arteko bilakaera: Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak % 3,7 hazi dira.

Hiruhile arteko bilakaera: Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentek % 0,7 egin dute gora hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Sektoreak: *Elikadura* sektorean urte arteko aldakuntza-tasa % 1,9koa da, *Gainerako produktuak* sektorean % 3,0koa eta *Automoziorako erregaia* sektorean % 19,4koa.

Lurralde historikoak: Araban urte arteko aldakuntza-tasa % 6,3koa izan da, Bizkaian % 2,6koa eta Gipuzkoan % 4,1ekoa.

Enplegua: langile okupatuak % 1,0 hazi dira 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Azerketa estatistikoa

2025. urtea

2025. urte osoan, txikizkako merkataritzako salmentek % 3,5eko hazkunde metatua izan dute, Eustatek landutako datuen arabera. *Elikagaien* sektorearen kasuan, salmentak % 2,5 igo dira aurreko urtearen aldean, *Gainerako produktuen* sektorean % 2,9 eta *Automoziorako erregaia* sektorean % 12,3.


Urtean zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Araban iguera % 5,5ekoa izan da, Bizkaian % 2,9koa eta Gipuzkoan % 3,4koa.

Sektoreko landunen indizeak % 0,8ko hazkunde metatua izan du 2025ean.

2025eko laugarren hiruhilekoa

2025eko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak % 3,7 handitu dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzendu ondoren.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio konstantetako salmentak % 0,7 hazi dira, dagozkien urtaro-eraginak kenduta.



Salmenten urtez urteko bilakaera positiboa izan da bai *Elikadura* sektorean, bai *Gainerako produktuak* sektorean, bai *Automoziorako erregaia* sektorean. Iguera % 1,9koa, % 3,0koa eta % 19,4koa izan da hurrenez hurren, 2024ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhileko arteko datuei dagokienez, joera goranzkoa izan da. *Elikagaiak* sektorean % 0,4ko igoera izan da, *Gainerako produktuak* sektorean % 0,1ekoa eta *Automoziorako erregaia* sektorean % 2,8koa.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea.

Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p).

2025/IV

	Prezio finkoak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,7	0,7	3,5
Araba/Álava	6,3	0,9	5,5
Bizkaia	2,6	0,5	2,9
Gipuzkoa	4,1	1,1	3,4
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	1,9	0,4	2,5
Elikagaien saltoki espezializatuak	-2,3	-0,1	-1,9
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	3,3	-0,7	4,0
Gainerako produktuak	3,0	0,1	2,9
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	3,9	1,2	2,3
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	2,8	0,8	3,3
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	3,6	0,6	5,8
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-0,8	-0,2	-0,4
Automoziorako erregaia	19,4	2,8	12,3
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	2,4	0,3	2,7
Langileria-indizea			
Euskal AE	1,0	-0,2	0,8

(p) Behinbehineko datuak

t/t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t/t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2026ko Otsailaren 6a

Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea

Orrialdea: 3 (5)

Elikaduraren sektorean, 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, salmentak % 2,3 txikitu dira *Elikaduran, edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzan* (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak eta abar). *Elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren merkataritza ez-espezializatuan* (batez ere supermerkatuak eta hipermerkatuak), ostera, salmentak % 3,3 hazi dira.

Gainerako produktuen salmentei dagokienez, *Pertsonen ekipamenduan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak) salmentak % 3,9 hobetu dira; *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak barne) % 2,8; eta *Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako* sektorean (besteak beste, kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak) % 3,6. Aldiz, *Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatu*etan (korrespondentzia edo Internet) salmentek % 0,8 egin dute behera.

2025eko laugarren hiruhilekoko txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak, urte arteko igoera izan du hiru lurralde historikoetan: Araban indizea % 6,3 igo da, Bizkaian % 2,6 eta Gipuzkoan % 4,1.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten bilakaera ere positiboa izan da hiruretan: Araban % 0,9, Bizkaian % 0,5 eta Gipuzkoan % 1,1 igo dira.

2025eko laugarren hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean landunen kopuruak % 1,0 egin du gora aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean. 2025eko hirugarren hiruhilekoaren aldean, ordea, enplegua % 0,2 jaitsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatzen dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilaren indizea kalkulatu da laginaren **% 94,24 kontuan izanik**.

Informazio gehiago:

- Taula estatistikoak: [\[ikus\]](#)
- Datu bankua: [\[ikus\]](#)
- Grafikoak eta bistaratzeak: [\[ikus\]](#)
- Metodologia: [\[ikus\]](#)
- Definizioak: [\[ikus\]](#)
- Kodeak eta nomenklaturak: [\[ikus\]](#)
- Egutegia: [\[ikus\]](#)
- Aurreko prensa-oharrak: [\[ikus\]](#)